

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ANDOINGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko aldiari ordaintzeko moduan jartzea 2018-2019ko ordainagiriak

Behin eginik Andoinen etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2018-2019ko errolda, jendaurrean jarriko da, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek Arabako Andoingo Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Zergen Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabete epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko urriaren 29an hasi eta azaroaren 29an bukatuko da, bi egun horiek barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2019ko azaroaren 29an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Andoingo Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekgarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Andoin, 2019ko irailaren 25a

Lehendakaria

ION MARTÍNEZ DE ILARDUYA YABEN